

LIVE MUSIC EXPERIENCE

EXPO
ALHÓNDIGABILBAON

EKAINAKREN 7etik IRALAREN 2ra
70, 80, 90, 00
ZUZENEKO MUSIKAREN BIZIPENA



LIVE MUSIC EXPERIENCE

Zuzeneko musika: 40 urte

1971. Zuzeneko rocka hasi zen Espainiako Estatuan. Kontzertuetara joaten zirenak hippieak ziren artean; ile luzea eta patxuli usaina zuten, eta rockak mundua aldatuko zuela uste zuten. Rockaren ideologiak jira eta bira asko eman ditu ordutik, baina zuzeneko musikak dibertsioa eta zirrara eskaintzen jarraitu du.

Musika ekitaldiak herri, auzo eta hirietako bizimodu sozialaren parte dira. Lehen, azoka eta erromeriek ohikeriarekin apurtzeko balio zuten, auzokoekin elkartzeko, atzerritarrei ongietorria emateko eta idoloengana hurbiltzeko. Orain, kontzertu eta jaialdietara joaten gara. Gay Mercader Espainiako Estatuako kontzertuen lehen sustatzaile profesionala izan zen. Bere ekimenari esker, industria txiki baina emankorra sortu zen, eta oraindik ere lana, ogia eta aterpea ematen die familia askori. Bere poster eta memorabilia bildumak Live Music Experience hari zuzentzailea dira.

Frankismoak azken hutsa hartzen zuela, rock-kultura alternatiboa sortu zen Espainiako Estatuan: 70eko rock erakargarria soinu banda gisa, eta konbentzionaltasun orori aurre egiten zion berezko balio-eskala. Musika hedatzea kulturaren aurkako ekintza zen ia-ia, eta berrogei urte geroago, onartu behar da musika-gizarte alternatiboek -hippy, heavy, punk, indie eta abar- arrasto sakona utzi dutela gure bizimodu garaikidean, eta hori modan, ohituretan eta hizkuntzan ere sumatzen da.

Garai nahasiak bizi ditugu. Historikoki, krisi handiek suspertu egin dute parrandarako gogoia, pobrezia eta bidegabekeria ahazteko: jazzak 30eko hamarkadan egin zuen gora; travolta-disko musikak, 70eko hamarkadan... Publikoarentzat, zuzeneko kontzertua aisialdirako modurik onena da. Baina musika herrikoia ere beste funtzio batzuk betetzen ditu: mezu eta aginduak zabaltzea, ideiak eta sentimenduak adieraztea... eta betidanik izan da memoria kolektiborako artxibo ezabaezina.

Blogak eta tweet-ak mundua aldatzen ari dira, eta publikoak mirestea eta kontsumitzea baino zeregin garrantzitsuagoa eta aktiboagoa eskatzen du. Live Music Experience zuzeneko musikaren ospakizuna da; jakitun da pertsonen errealitate soziala eta bizitzaren bilakaera musikari lotuta daudela halabeharrez.

Zuzeneko kontzertu batean, publikoa artista bezain garrantzitsua da. Horregatik, Live Music Experience erakusketa interaktiboa da: parte hartzeko, dibertitzeko eta, batez ere, zuzeneko musikaren zirrara berriro sentitzeko gonbita egiten digu.

Patricia Godes. Live Music Experienceko komisarioa

ANTOLATZAILA ETA ZUZENDARIKIDETZA

Alhóndiga Bilbao

ZUZENDARIKIDETZA

ZORROZUA asociados
consultoría de diseño

LANKIDETZA BEREZIA

LasToursInternational

BABESLEA

PHILIPS

LAGUNTZAILAK



www.fnac.es

KOMUNIKABIDE LANKIDEAK



ARGITARATZAILA: Alhóndiga Bilbao.

EKOIZPEN EDITORIALA: Línea 20 Revistas, S.L.U.

Condesa de Venadito, 1. 28027 Madrid. Tel.: (34) 917 015 600.

INPRIMAKETA: Grupo Impresa. C/ Herreros, 42. 28906 Getafe, Madrid.

LEGE-GORDAILUA: M-20105-2012

GAY MERCADER

«Gaur egun ez litzaidake burutik pasatu ere egingo sustatzaile izatea. Ez da beharrezkoa»

TESTUA PATRICIA GODES ARGAZKIAK THOMAS CANET

LIVE MUSIC EXPERIENCE ERAKUSKETA GAY MERCADERREN OROIGARRI-BILDUMAREN INGURUAN SORTU DA. GAY AITZINDARIA IZAN ZEN ESPAINIAR ESTATUKO ROCK KONTZERTUETAN, ETA DUELA GUTXI ERRETIRATU DA NEGOZIOETATIK, LAU HAMARKADA LUZEREN ONDOREN. BERE OROITZAPEN, IRITZI ETA ANEKDOTEK SEKULAKO BALIOA DUTE.

Zenbat neke eta izerdi ez ote zenituen botako Rolling Stones taldeak Bartzelonan jo zezan?

Kontzertu hark izan zituen zailtasunak nekez zenbatu daitezke. Nik auditorio bat egin nahi nuen Cambrilsen, Tarragonan, eta alkateen arteko borrokak zirela-eta, batzuk hasi ziren esaten Stonesekoek tipoz betetako kamioiak zermatzatela, eta gizon horiek ateak ireki eta emakumeak bortxatzen zituztela. Jendeak sinetsi egin zuen eta Cambrilsek baztertu egin gintuen. Handik La Rocara joan ginen, auditorio baterako leku ezin hobeak baitzeuden, akustikari zego-kionez. Baina egun batean herriko plazara heldu eta jende andana topatu nuen, «Gay 76: EZ» zioten pankartak eskuetan zituztela. Zelai nudista gay bat egingo genuela pentsatzen zuten. Horrek adierazten digu nolakoa zen herri hau garai hartan. Balañá familiak egin zigun mesede bati esker, bi zezen-plazaren jabeak baitziren, kontzertua Bartzelonako Monumentalean egin ahal izan zen azkenean.

Eta proiektu nahiz auditorio guztietarako, nola lortzen zenituen finantziariorako bazkideak? Hitz-jario handia izango zenuen, eta asko miretsiko zintuzten, jende hura konbentzitzeko...

Stonesekoak etorri zirela gero, zuzeneko musikaren mapan sartuko ginateke. Niretzat funtsezko estrategia zen. Ez litzateke hainbeste jende etorriko haien ondoren, Stonesen bermeagatik izan ez balitz. Kontzertua egin eta handik hilabetera, Bill Grahamek gutun bat bidali zidan, Santanarekin etorri nahi zuelako... eta, gero, Dylan ekarri zuen. Garai hartan,





Blues Brothersen film batean nengoela iruditzen zitzaidan: «Misio jainkotiarrean gaude». Misio horretan geunden eta nik gustatzen zitzaidan musika ekarri behar nuen jendeak ikus zezan, eta, hori lortzeko, tartean edonor sartzeko gai nintzen. Atzera begiratzen dudanean, itsu-itsuan egindako aurreranzko martxa gisako bat izan dela ohartzen naiz...

Sandy Dennyk Metamorfosis clubean jotzearena ere zuk egin zenuen?

Bai, Sandy Dennyrena bai, geuk eskatu genuen Metamorfosisen. Segis deitzen den nire lagun batek atera zuen. Baina ez daukat ezer gogoan, egia esan.

Bada, denak hankaz gora bukatu zuen, eta, antza denez, negarrez joan zen.

Ez daukat gogoan, baina negarrez joan bazen, ez dut uste emanaldiagatik izango zenik. Hemen tipo batez maitemindu zen eta nik uste horregatik egiten zuela negar batez ere.

Historia idatzi den moduan, herri honetan emakumezko guztiak ziren beatak, arrosario batekin eta buruan zapi beltzarekin, eta gizon nagusiek txapela sartua eta gerrikoa izan ohi zuten... Zelan uler daiteke orduan King Crimson edo Incredible String Band bezalako taldeak gustuko izatea?

Jende askori gustatzen zitzaizkion nire gustukoak ziren gauza berberak. Doors jarri eta liluratuta gelditzen ziren. Nola eza-gutzen zituzten? Ingelestxoek hamarkada bi lehenago egiten

zuten moduan: kanpoko irrati-kateak entzunez, bidaiatzen zuen lagun bati esker... Beti egon izan dira zenbait militante, esaten zizutenak «aizu, hau entzun behar duzu».

Heldu zinenean, musikaren giroa negoziotako eta kulturako jendez osatuta zegoen, kosmopolita, diruduna... Ala ez?

Zenbait talde zeuden, eta ahal zuten moduan egiten zuten musika, instrumentuak garestiak zirelako. Salón Iris izeneko Musika Progresiboaren Jaialdiak antolatu ziren, eta, bertan, Free taldekoek jo behar zuten, baina azkenean ez ziren etorri. Jaialdi garrantzitsua egin zen Granollersen, han ere oso argitsuak ziren eta... Bartzelonan Boccacio izeneko diskoteka moduko bat zegoen. Hara joaten ziren Juan Marsé, Vázquez Montalbán, Tusquets familia, Bofilltarrak, Bohigas... Bartzelonako inteligentsia, alegia. Askatasun askoko espazioa zen, baina ez zegoen besterik, ezin zenezakeen musikarik ikusi, eta ni Parisen kontzertuetan egona nintzenez, hemen ere gauza bera egotea nahi nuen. Ezer antzekorik ez zegoelako egin nuen egin nuena, baina gaur egun ez litzaidake burutik ere pasatu egingo sustatzaile izatea. Inoiz, inoiz ez. Ez da beharrezkoa.

Unerik zoroena Lou Reeden kontzertua izan zen, Madrilen, 1980. urtean.

Garaiko Lou Reeden ikus-entzuleak txarrenak ziren, baina txarrenak txarrenetan. Ez guztiak, baina Lou Reeden kontzertuetan labanak, xiringak... eta denetarik aurkitzen zenuen. Moscardóko kontzertuan, polizia joan zen eta jendea bero zetorren. Norbaitek zerbait bota zion Lou Reedi eszenatokian, eta jendea oldartu egin zen, dena hondoratu zen, eta eszenatokira erortzen ziren fokuak lehertu egin ziren. Gero hasi ziren lapurretak, eta polizia bateriaren dunbala lapurtu zuen tipo bat atxilotu zuen. Gainera datozkizun bost, sei edo zazpi mila pertsonaren aurrean zaudenean... Denbora luzez, nirekin harremanak zituztenek eta nik neuk ere, amesgaiztoak izan genituen gauero.

Seguru asko, zentsurarekin ere borrokaren bat izango zenuen.

Gogoan daukat zentsura-bulegora joaten zinela eta abestien hitzak aurkeztu behar zenituela. Ni Parisen hazi nintzen, eta handik 68ko maiatzean joan nintzen, polizia harrika ibili ondoren; kontua ez da ausarta nintzela, erabateko arduragabea nintzela baizik. Ez nuen ideiarik ere zer zen errepresio frankista. Esaten zidaten: «Begira, delako komisarioak esan du...» eta niri bost axola. Abestien hitzekin berdina gertatzen zitzaidan; aurkeztu behar genituen, lagun batekin elkartu eta etxean idazten genuen: «Nik maite zaitut, zuk maite nauzu, eskutik heltzen diogu elkarri, la la la... Leloa», eta ordu laurdenean, hamabi abesti egiten genituen. Ondoren, zentsura-bulegora eramaten nituen; gaizki gogoratzen ez badut, Diagonalean zegoen; eta zentsoreak, ingeles zipitzik ere ez zekienez, bisa jarri eta dena bikain zegoela esaten zizun.

Jendeari aldageletako sekretuak eta musikarien eskaerak izugarri gustatzen zaizkio. Zergatik ote da?

Artisten nabarmenkerien kontu hau marketin gisa erabiltzen genuen. Jendea kontzertuetara erakarri behar genuen. Gaur egun ere, watt bat zer den jakin gabe jarraitzen dut... baina gogoan daukat nola iragartzen genuen milaka dozena watt argi, milaka dozena watt soinu... Bainugelan Pink Floyden horma-irudi bat daukat, non iragartzen baikenuen «Benetako soinu koadrafonikoa». Eta, batzuetan, galdetzen ziguten: «Eta



zenbat kilometro kabletan?» «Bada, honenbeste». Nire lehenengo kontzertuaren publizitaterako, nire bazkidea eta biok horma-irudi baten aurrean jartzen ginen, eta esaten genuen: «Aizu, ikusi duzu nor datorren? Ikustera joan beharko dugu». Hori esan, eta hauxe botatzen genuen gero: «ez-dakit-zer eskatu digute». Halaber, kristau-ikasbide larregi eta ikuspegi kosmopolita eza handia zegoen garai hartan. Gogoan dut galdetzen zigutela zergatik behar genituen hainbeste toalla garbi. Eta nik pentsatzen nuen: «Nork nahiko ote du toalla zikinik?».

Egia da! Ederra esan didazu!

Artista batek urte eta erdi, bi edo hiru urte egiten ditu biran. Gogoan daukat Keithi bere Estatu Batuetako etxera Bebo eta Cigalaren diskoa bidali niola, Lágrimas negras izenekoa, eta, berarekin berbetan, galdetu nion: «Diskoa heldu zitzaizun?», eta berak erantzun zidan: «Urte bi eta erdi dira biran nagoela» Zer esan nahi du biran egoteak? Hegazkina: denak berdinak; aireportua: denak berdinak; pabiloiak eta estadioak: denak berdinak; aldagelak: denak berdinak; hotela: denak berdinak... Horregatik saiatzen zara aldagela lauza zuri ezatseginekoea ez izatea, normala iruditzen zait. Michael

«ABESTIEN HITZAK ZENTZURA-BULEGOAN AURKEZTU BEHAR GENITUEN, BERAZ, LAGUN BATEK ETA BIK IDAZTEN GENITUEN. INGELESEZ EZ ZEKITENEZ, DENA BIKAIN IRUDITZEN ZITZAIEN.»

«PARISTIK NENTORREN; HAN, KONZERTUETAN EGONA NINTZEN, BAINA HEMEN EZ ZEGOEN HALAKO EZER.»

«ARTISTEK URTEAK EMATEN DITUZTE HEGAZKIN, AIREPORTU ETA HOTELEN ARTEAN... HORREGATIK SAIATZEN ZARA ALDAGELA LAUZA ZURI EZATSEGINEKOA IZAN EZ DADIN.»

Jacksonek dantza-pista bat eskatu zigun bere logelan; normala, tipoa dantzaria zen. Mick Jaggerrek pasillo luzea nahi zuen jogginga egiteko showaren aurretik; logikoa, bi ordu eta erdiz arituko da eszenatoki gainean eta sasoiaren egon nahi du. Joan den egunean, Stones taldeari buruzko erreportaje bat ikusten ari nintzen; 1998. urtearen inguruan zegoen kokatuta, Marbellan; eta esatariak zera esaten zuen: «Egoera onean dagoen billar bat eskatu dute». Zertarako eskatuko zuten egoera txarrean zegoen billar bat? «Eta makilak eskatu dituzte». Noski, billarrean makilekin jokatzeko da. «Eta karea eskatu dute». Ba jakina! Makiletarako!

Baina talde handiek ez al dute dena euren trailerretan ekartzen?

Normalean Stones taldekoek beren billar-mahaia ekartzen dute. Kamioi oso bat betetzen dute billar-mahaiarekin, joko-makinatxoekin, liburuekin... Izan ere, oso aspergarria da: kontzertua gaueko bederatzietan hasten bada, arratsaldeko hiruretan musikariak lokalean egon ohi dira. Ez dute alde egingo, zeren eta, joaten badira, ezingo dira berriro sartu gero; izan ere, hainbeste jende dago kanpoan, ezinezkoa dela handik ibiltzea... Zazpi ordu eman behar badituzte zain, logikoa da dibertimenduren bat nahi izatea.

Zeintzuk dira zure planak eta hurrengo proiektuak?

Asteko zazpi egunetan, hamabi edo hamalau orduz lanik egin gabe egoten ikastea. Nire bazkideek, Luisek eta Pacok, hogeita hamar urte baino gehiago eman dituzte nirekin, baina zaletasunak eta familia dituzte. Nik ez daukat seme-alabarik, zazpi harreman izan ditut eta denek utzi naute, ez dutelako jasaten amorante batekin bizitzea, hau da, nire enpresarekin, Gay & Companyrekin. Nire asmoa da, oso berandu ez bada behintzat, bizi naizen lekuaz eta nire lagunaz gozatzea... eta erritmo zoro hau apurtxo bat eten nahiko nuke.

LIVE MUSIC EXPERIENCE 70

Agindua, ondo pasatzea

Hamarkadaren lehenengo urteetan, kutsu *light* bateko naturismoa jabetu zen diskoaren industria, komunikabideez eta, batez ere, publikitateaz. Talde akustikoen garaia izan zen, bai eta kantautore sentiberena ere, Nick Drake zorritzarrekia kasu. Rock progresiboak eta iraganaren beste arrasto batzuek, hala nola, jaialdi handiek, hamarkada osoan zehar biziraun zuten; alabaina, horren erantzun gisa, *glitter* eta *glam* direlakoak sortu ziren, izen bi gauza bakarrarentzat: rock gazte, baldar eta handiustea. Nerabeen artean sekulako arrakasta izan zuen; New Yorkeko abangoardiarekin ere nolabaiteko harremana izan zuen, eta apeta poetikoak eta artistikoak deskubritu zituen, David Bowieri eta Marc Bolani esker. Gay askapen-mugimenduaren ingurukoak sarri entzuten ziren. Rock *revival* izenekoa sortu zen, eta rock-mesianismoaren kontzeptua musikatik bereiztea ezinezkoa gertatu zen.

Oso azkar garatzen ari zen krisi ekonomikoarekin, hirurogeita hamarrekoko hamarkada azken bi mendeetako historian sexu-askapen handienaren hamarkada izan zen. Ondorioz, disko-musika hamarkada horretako indar sortzaile ahaltsuenetakoa izan zen. Musika beltzean, funk musika estilo gisa independizatu zen, eta, musikari handi batzuek, hala nola, Marvin Gaye, Curtis Mayfield, Stevie Wonder eta Isaac Hayesek, ospe handiko lanak konposatu eta grabatu zituzten. Hamarkada punkaren helduerarekin amaitu zen; ordura arte, rockaren barnean zegoen konstante subliminala zen, baina *mainstream* bihurtu zen, Londresko *boutique*-punkaren zalapartaren ondorioz.


Hona hemen izen berezi batzuk: Eagles, Queen, Kiss, T. Rex, Sweet, Black Sabbath, Led Zeppelin, Grand Funk, New York Dolls, David Bowie, Lou Reed, Iggy & The Stooges, Allman Brothers Band, Lynyrd Skynyrd, Emerson, Lake and Palmer, Yes, King Crimson, Cat Stevens, Elton John, Joni Mitchell, Diana Ross, Jackson 5, Stevie Wonder, Curtis Mayfield, Marvin Gaye, Donna Summer, Crosby, Stills, Nash & Young, Frank Zappa, Sex Pistols, Ramones, The Jam, The Clash, Blondie, Police, Silver Convention, Giorgio Moroder, Chic, etab.




BIZI EZAZU ZURE ESPERIENTZIA

OIHUMETROA, AHOTSAK IRAUTEN DUEN ARTE

Giza ahotsa musika-instrumentu adierazkor eta adierazgarriena da. LMEK gonbit egiten die bisitariei euren buruak hirurogeita hamarrekoko hamarkadako rockaren eta soularen munstroekin alderatzera. Aurrerapen teknikoek esker, giza ahotsaren espektra aztertu dezakegu, perfekzioa ukitzen duen zehaztasunarekin. Oihumetroaren kabinak giza ahotsaren iraupena, aldarrea eta bolumena neurtzea ahalbidetzen du, musikaren historiako ezterririk boteretsuenekin alderatuz.



ROBERT FRIPP & BRIAN ENO (1975). King Crimson eta Roxy Music taldeetako kide gisa dira ezagunak, eta jendea liluratu eta harritu egin zuten aldi berean, *show* kontzeptual, minimalista eta errepikakorra eskainita.




TRAFFIC (1974). Steve Winwood gazte miresgarriak zuzendutako taldea. Soul onarekin eta mota guztietako koloreekin nahastutako rock blues musikaren maisuak ziren. Britainiarrak, jakina.




GIBSON GITARRA, NIGHTHAWK MODELOKOA The Rolling Stones taldearen oparia

Gibsonek diseinatu zuen laurogeiko hamarkadan, Fenderren estilora hurbiltzeko saiakera gisa (hori baita bere lehiakide nagusia); hala ere, Les Paul gitarraren antz handiagoa dauka. Nighthawk gitarra soila eta sinplea da, eta ez zuen zorte handirik izan merkatuan. Hori horrela, 1999an eten zen bere ekoizpena, egiten hasi eta sei urtera soilik. Gitarra honen ospea, baina, haziz joan zen, eta, eskari ugari izan dituen, Gibson berriro hasi behar izan da beraz ekoizten, aldaketa txiki batzuekin, merkatutik erretiratu eta hamar urte geroago. Keith Richardsek eta Ron Wordek gitarra-bilduma handiak dituzte, baina inoiz ez dute Nighthawkik erabili zuzenean. Nelly Furtadok, John Frusciantek (Red Hot Chili Peppers) eta Shaun Verreaultek (Wide Mouth Mason) ere erabiltzen dute. [Argazkia: © Fab Llanos]



FREDDIE MERCURY Bartzelonan, 1979an. Queen taldearen liderra, rockaren silueta enblematikoa, rock'n'rollaren argazkilaria eta Bartzelonako undergroundaren kondaira biziduna den Flowersen objektiboan.



STINGEN FENDER PRECISION BAXUA. Musikariak gama altuko instrumentu hau oparitu zion Gay Mercaderri. Zerbaitegatik da Police taldearen lider ohia rockaren benetako gentlemanetako bat. [Argazkia: © Fab Llanos]


Erakusketan ikusiko duzuna

Parisko Bake akordioek amaiera eman zioten Vietnamgo gerrari. Martxoaren 29an, azken soldadu estatubatuarra irten zen herrialdeetik.



Azaroaren 24an, Nick Drake kantautore britainiarra hil zen. Hogeita hamar urte geroago, musika herrikoia funtsezko figuretako bat izatera heldu zen.

Genesis, talde erregaitza, Donostiako belodromoan aritu zen maiatzaren 18an. Antzerki-show bikaina, Phil Collins eta Peter Gabrielen kargura.



Elvis Presley hilda agertu zen Memphiseko bere etxean, abuztuaren 16an, droga legalen gehiegizko kontsumoagatik.

Camarónek *La leyenda del tiempo* argitaratu zuen, bere hamargarren albuma. Bertan, omenaldia egiten zion García Lorcarri; hain zuzen ere, disko horrek flamenko berriaren jaiotza ekarri zuen.

1972 1973



Apolo 17 espazio-ontziak Taurus haranean hartu zuen lur, abenduaren 11n. Gizakiak Ilargira tripulatutako azken misioa izango zen.

1974

Rolling Stonesen lehen emanaldia espainiar Estatuan, ekainaren 11n, Bartzelonako Monumental zezen-plazan. Kontzertu honek betebetan murgildu gintuen zuzeneko musikaren merkatuan.



1975

1976

1977

Eric Clapton, Santana Paco de Luciarekin, Supertramp, Joan Baez, Dr. Feelgood... Nazioarteko kontzertu handiz betetako urtea izan zen.

1978

Abenduaren 6an, Konstituzioa berretsi zuen erreferenduma egin zen. Aurreko urteko ekainean, Bigarren Errepublikaren osteko lehenengo hauteskunde demokratikoak egin ziren.

1979



Queen taldeak bi gau jarraian bete zuen Real Madriden Kirol Pabiloia (Madril), otsailaren 27 eta 28an. Freddie Mercury sasoi betearen zegoen.

LIVE MUSIC EXPERIENCE


80

Rockak burua galdu zueneko

1977an, King's Roadeko boutiqueetatik, Londresko punkaren *boomak* modu erradikalean hunkitu zuen musikaren gizartea eta gizarte horren balio-eskala. Ondorioz, musikari dagokionez, laurogeiko hamarkadaren lehen erdia Margaret Thatcherren Ingalaterra dekadente eta hondatuaren menpe zegoen. Urte haietan, pop musikaren eragin nagusiak ez ziren musika arlokoak, ezpada bisualak. Irudi eta musika arloko itxurakeriak dena hartu zuen mendean: mozorroak, diseinuak, makillajeak, kardatuak eta trapaak abestiak baino garrantzitsuagoak ziren. Musika ganorarik gabeko esparrurantz degradatuz joan zen, eta arlorik popenak hori nahiko ondo jasan bazuen ere, garai hartako *rock starrek* gehiegikeria eta abusu mota guztiak egin zituzten modernitatearen izenean. Ateak bezala pintatuta, lagarterarrak bezala jantzita eta kakatuen moduan orraztuta, musika egiteaz ahaztu ziren, ilerako laka-sprayekin entretenituegi zeuden eta.

Garajeko rockaren itzulera eta muturreko musiken zabalkundea ganora apur bat berreskuratzeko ahalegin on samarrak izan ziren, baina zentzutasuna Milli Vanilliren sakrifizio lagungarriaren ostean baino ez zen berriro modan jarri. Hip hopa, musika etnikoen tratamendu komertzialak, diskotekako musika elektronikoen era guztiak, Motownen estilo-arietak eta beste hamarkada batzuetako artista klasikoak MTVko *supervedette* bihurtzeak dira garai honen ezaugarrietako batzuk. Hain zuzen ere, sasoi honek arrasto arriskutsuki ezabaezina utzi zuen modan, musikan, ingurumenean eta ekonomia globalean.

Hona hemen izen berezi batzuk: Madness, B-52's, Classix Nouveaux, Visage, Soft Cell, Depeche Mode, Culture Club, The Cure, Duran Duran, Spandau Ballet, Siouxsie and The Banshees, The Style Council, Prince, Madonna, Whitney Houston, Tina Turner, Michael Jackson, Sade, U2, Judas Priest, Iron Maiden, Motörhead, Bon Jovi, Mötley Crüe, Twisted Sister, Sonic Youth, Sting, Sabrina, Samantha Fox, Run DMC, LL Cool J, Beastie Boys edo Public Enemy.



BIZI EZAZU ZURE ESPERIENTZIA

ERABATEKO JAIALDIA, MUTILEN LOGELA NARRASEAN

Logelako *headbanger* delakoak mendebaldeko musikan eta kulturaren eduki ahal izan duen eragina aztertzeko asmoz, LMEk zehaztasun osoz erreproduzitu du 80ko hamarkadako logela bat, bere telebista eta guzti. Bertan, etxeko nerabeak burua astintzen ibiltzen ziren 125 BPMra, errealitate paralelo batetik. Bisitaria gonbidatzen dugu giro hura berriro bizitzera eta bertatik bertara esperimenteratzera bideoklipeak eragiten zituzten sentsazio haiek.




RAMONES taldeak askotan bisitatu gintuen. Donostian eman zuten lehen kontzertuaren kartelean, Guy Jukek *Pleasant Dreams* albumeko azalerako egin zuen figura agertzen da.

THE CURE TALDEAREN LES PAUL EPIPHONE GITARRA, Gay Mercaderreri egindako oparia. Taldearen eta Gayren enpresaren arteko harremana 1987an hasi zen, *The Kissing Tour* birarekin, eta harremanak 2008ra arte iraun zuen.

GIBSON GITARRA, SG MODELOKOA Angus Youngen oparia [AC/DC]


1969an, Angus Youngek bere lehenengo gitarra elektrikoa eskuratu zuen, 68 SG Standard modeloko Gibson bat, gaur egunera arte jotzen jarraitu duena. AC/DCren soinu gordin eta mingarriak asko zor dio gerezi koloreko gitarra honi, ilargi erdiko formadun bi cutaway dituen (notarik altuenetara errazago heltzeko). Hain zuzen ere, cutaway horiek taldearen ikurra dira dagoeneko. Youngen argibideak jarraituz, Gibsonek modelo faksimilea jarri du salgai, kaobazko gider eta gorputzarekin. Gaur egun, Angusek SG modeloko ehun gitarra baino gehiago ditu. [Argazkia: © Fab Llanos]



ALICE COOPERREK 1982an Bartzelonan eman behar zuen KONTZERTUA ez zen azkenean egin: ekipoa blokeatuta geratu zen mugan, nekazari frantziarrek zeuden gatazken ondorioz.



B-52'S ZUZENEAN: Koloreak, kirrinkak, kardatuak eta erritmo jostari eta beretzaleak. Athenseko (Georgia) taldeak eragin nabarmena izan zuen garai hartako pop espainiarrean.



DAVID BOWIE Bere *Glass Spider Tour* ikusgarriarekin, Kameleoa Carlos Atomarrekin eta Peter Framptonekin batera agertu zen Madrilén. [Argazkia: Flowers]

1980 Abenduaren 8an, Mark David Chapman fan zoroak John Lennon hil zuen New Yorken. Chapman zigorra betetzen ari da oraindik.

1982 Disko konpaktu digital edo CDa merkaturatu zen. Formatu horrek bazterrean utziko zituen biniloak, musika-euskarri gisa.



1983 Madonnaren lehen diskoa argitaratu zen, Sire zigilurekin. Abeslaria, erabateko ezezaguna izatetik, hamarkadako emakumezko izarrik handiena izatera pasatu zen.



1986 The Kinks taldeak Donostiako Anoetako Belodromoan jo zuen 1986ko maiatzaren 9an. Laukote britainiarrek musikaren esparruan jakituria eta abildadea erakutsi zuen.



1988 Michael Jacksonek, Pop musikaren Erregeak, bere bakarkako lehenengo bira egin zuen, eta Madrilén ere izan zen abuztuaren 7an. Aurreko urtean, *Bad* argitaratu zuen.

1980

1981

1982

1983

1985

1986

1987

1988

1989



1981 Lehenengo IBM PCa jarri zen salgai, eta, horrela, etxeko ordenagailuen aroari ekin zitzaion. Ramones taldearen kontzertua Donostian, azaroaren 15ean.



1985 Michael Jacksonek eta Lionel Richiek *We are the World* konposatu zuten, eta kantua pop, rock eta souleko izarrek grabatu zuten, Etiopiako gosearen aurkako borrokan elkartuta.

1987 David Bowiek kontzertua eskaini zuen Madrilgo Vicente Calderón estadioan, uztailaren 6an. The Cure taldearen *The Kissing Tour* Bilboko La Casilla Udal Kirol Pabiloira heldu zen azaroaren 22an.



1987 Uztailaren 15ean, 135.000 pertsona joan ziren U2k Santiago Bernabeu estadioan eman zuen kontzertura. Lehen aldia zuten espainiar Estatuan, eta *The Joshua Tree* ari ziren aurkezten.

1989 Azaroaren 9an Berlingo Harresia erori zen, Alemaniako Errepublika Demokratikoak 44 urteko blokeoari amaiera ematea erabaki zuenean. Mundu osoak jarraitu zuen gertakaria telebista bidez.

Erakusketan ikusiko duzuna

LIVE MUSIC EXPERIENCE



Krisia salbatzeko musika

90eko hamarkada bete-betean sartu zen musikaren almanaka existentzial-lean. 1990-93ko atzeraldi globalaren ondorioz, industriak, medioek, idoloek eta zaleek gauza asko birplanteatu behar izan zituzten. Belaunaldi berriak sartu ziren maila protagonistara, eta indarrez inarrosi zituzten musikaren iraganeko balio zaharkituak, 25 urtetik gorakoetan nahasmen-arrasto sana utziz. Pop eta rock musikaren munduek lasai hartu zuten arnasa, ezohiko idolo bat Top 10era heldu zenean, erabat zarpaildutako rebeka bat jantzita. Kurt Cobain deitzen zen, eta, bat-batean, *grunge* musika eta arropa *mainstream* izatera heldu ziren. Ingalaterrak ez zuen musika-erregimenetik kanpora geratu nahi, eta Blur, Pulp, Oasis... bezalako taldeen ekarpena egin zuen; mutiko ez lar sofistika-tuak, sinpleak eta baldar samarrak ziren haiek. Dagoeneko inork ez du itxuririk izan nahi, inork ez du ikusgarria izan nahi edo argazkietan ondo geratu nahi. Beturrekoak, garauak eta trenkak ziren azken baliabidea, arreta pizteko modu bakarra, aurreko hamarkadetako nabarmenkerien osten.

Konstante historikoa da, krisi garaietan, pobrezia eta dibertsiorako gogorik desesperatuena elkarrekin agertzea. Helburu adrenalitiko eta sexual argiarekin, dantza-pistek maila epikoa lortu zuten; izan ere, *rave* jendetsuak egiten ziren Europa osoan, eta beste zenbait fenomeno ere agertu ziren; adibidez, bakailaoaren ibilbidea, espainiar Estatuan. Neurri horretako parranden ajea gaur egunera arte heldu da. Modu paraleloan, anti-folk mugimenduak mundua bezain zaharra zen musika mota bat berritu zuen, eta *riot grrrls [girls]* izenekoek hirugarren olatu feministaren soinu-banda sortu zuten.

Hona hemen izen berezi batzuk: Mudhoney, Soundgarden, Pearl Jam, Alice In Chains, Green Day, The Offspring, Nirvana, Marilyn Manson, Guns N' Roses, Metallica, Faith No More, Rage Against the Machine, Nine Inch Nails, Take That, Spice Girls, Mariah Carey, Alanis Morissette, Sheryl Crow, Tupac Shakur, R. Kelly, Brandy, Tevin Campbell, Boyz II Men, Babyface, Chemical Brothers, The Prodigy, Orbital, The Future Sounds of London, M People, Culture Beat.



BIZI EZAZU ZURE ESPERIENTZIA

MOSHING ETA CROWD SURFING: SUGEEEN HABIA

Moshing delakoa eszenatokira igo eta publikoaren gainera salto egitea da, behean daudenek hartuko zaituztelako esperantzarekin, eta lurrera eroriko ez zarelakoan. Eta *crowd surfing* da, salto egin duenak, gainera, lortzen duenean lokalaren atzealderaino eraman dezaten beso batetik bestera, jendearen buruen gainetik. LMEn prestatu dugun *crowd surfing* esperimenduak ez du inongo arriskurik, eta ez da inondik ere kaltegarria; beraz, egokia da maritxu, kakati eta koldarrentzat.




OASIS 90EKO BEATLESAK IZAN ZIREN. Gallagher anaiek euren liskarrekin betetzen zituzten txutxu-mutxuen aldiskariak, eta arrakasten zerrendak ere betetzen zituzten, abesti on askorekin.



LUDWIG BATERIA-PARTXEA, SKID ROWek Gay Mercaderri emandakoa. Sebastian Bach, Scotti Hill, Dave The Snake Sabo, Rachel Bolan eta Rob Affusok sinatua 1995ean.

EPHPHONE LES PAUL STUDIO GITARRA Page eta Planten oparia (Led Zeppelin taldeko kide ohiak)

Jatorri greziarreko artisau bat eta jatorri alemaniarreko gitarra-jotzaile bat daude Jimmy Pagek Gay Mercaderri eman zion gitarraren atzean: Epaminondas Stathopoulos bere aitaren gitarra-tailerra heredatu zuen 1915ean, eta Epiphone marka sortu zuen; bestetik, Les Paul eta Ted McCartyk (garai hartan, Gibsoneko presidentea zen) musikaren ibilbidea aldatuko zuen gitarra elektrikoa asmatu zuten 1952an. 1953tik, Epiphone marka Gibsonek esku dago. Les Paul markako Studio serieko modeloak 1983an diseinatu ziren ikasleentzat. Horretarako, gitarra garestitzen zuten apaingarri eta edergarriak kendu zituzten, erosotasuna eta soinua mantenduta. [Argazkia: © Fab Llanos]



Erakusketan ikusiko duzuna



FOO FIGHTERS taldearekin, Dave Gröhl (Nirvana taldeko bateria-jotzailea) musikara bueltatu zen, Kurt Cobainen heriotzaren ondoren. Dezenteko arrakastarekin gainera, eta pertsonalitate propioko soinurekin.



BLACK CROWES TALDEAREN STRATOCASTER GITARRA Fenderren Squier markakoa, Gay Mercaderri egindako oparia. Taldeak hainbat aldiz bisitatu izan ditu Bartzelona, Madril eta Zaragoza.



BECK HAMARKADAKO JENIO OFIZIALA ZEN. Musika arloan zuen kultura agortezina bere abesti eta diskoetako nota bakoitzean islatzen da. Eragin handikoa.

Irakek Kuwait inbaditu zuen, eta, ondorioz, Golkoko lehenengo Gerra piztu zen. Bi Alemaniak, 1945etik bananduta egon osten, elkartu egin ziren.




1992ko handikeriek, Bartzelonako Joko Olinpikoak eta Sevillako Expoak, krisira eraman zuten Espainia. Eta beste krisi bat flamenkoarentzat: Camarónen heriotza.

Aerosmith-ek, rock gogorraren adierazgarriak klasikoan, Donostiako Anoetako Belodromoan bete zuen, taldearen zuzeneko onaren onenarekin.



Marilyn Mansonek ospea lortu zuen, *Sweet Dreams* lanarekin. Windows 95 sistema eragilea merkaturatu zen, eta EBk euroa sortzea onartu zuen.



Britney Sparsek bere lehenengo punta-puntako arrakasta lortu zuen pop musikaren izar gisa. *Baby one more time* lanarekin. AEBetan, Viagra saltzen hasi ziren, inpotenziaren aurka egiteko.

1990

1991

1992

1993

1994

1995

1996

1997

1998

1999



Erraldioen arteko borroka, rockik gogorrean: Guns N' Roses taldeak (argazkia) *Use your illusion* atera zuen, eta Metallica, berriz, bere bosgarren albuma, taldearen izen berekoa.

Kurt Cobain gitarra-jotzaile eta Nirvana taldearen liderrak bere buruaz beste egin zuen, buruan tiro eginda. Urte hartan bertan, Estatu Batuetako Discovery transbordadore espaziala jaurti zuten espaziora.

Mp3 formatua jendartearen zabaldu zen Interneten, abestiak trukatzeko formula gisa. Sex Pistols taldea elkartu egin zen, Filthy Lucre Tour bira eskaintzeko.



Elton Johnek *Candle in the wind* abestu zuen, bere lagun Lady Diana Spencerreren hiletan. Frank Gehryk egindako Bilboko Guggenheim Museoa atek ireki zituen.

Bill Clintonen aurkako epaiketa Lewinsky kasuagatik. 130 urtean, AEBetako presidente baten aurkako lehenengo epaiketa izan zen. *Gran Hermano (Anaia Handia)* saioa emititzen hasi ziren Holandako telebistan.



'KO' teknologikotik diskora

Krisia eta anabasa. Balio tradizionalen eskalak gainbehera egin du eta proportzio tragikomikoak hartu ditu musika herrikoari dagokionez, gizartearekin duen lotura zuzena dela-eta. Teknologia berriek disko-industriaren amaiera ekarri dute; izaera ezberdineko beste faktore batzuek, berriz, egon litekeen eroslea gogogabetzen dute, batez ere, merkatu atomizatu eta labirintiko baten konplexutasuna, gero eta komertzialagoa den musika hutsala eta kalitatezko musikaren ordezkoak direla-eta.

Hala ere, zaleak ez du inoiz izan hainbeste baliabide informazioa lortu eta musikaz gozatzeko, eta irizpideak banakatu egin dira. Arrakastaren nozioa urtu egiten da, kontsumoko era berriek orainaldiko eta iraganeko izen, musika eta estiloen bizikidetzak ahalbidez duten bitartean. Googlek memoria babesten du eta musika-moda iragankorren ideia zaharkitu egiten du. Inolako iragazkirik gabe, oharkabean igaro ohi izan diren estiloek berriro hartzen dute balioa. Kaosaren eta ezkortasunaren barruan, zenbait jarraibide nabarmentzen dira: rock, pop eta R&R estiloen *supervedette* berrien protagonismoa: Beyoncé, Rihanna edo Madonna agortezina; pop latindarraren musikariak nazioarteko panoraman agertzea. Talentu berrien telebista-lehiaketek arrakasta handia dute, baina, kontrapuntu moduan, hedabideek arreta berezia jartzen dute gitarra-jotzaileengan eta folk alternatiboaren kantautoreengan: Vic Chesnut, Devendra Banhart, Sufjan Stevens, Joanna Newsom, Damien Jurado.

Hona hemen izen berezi batzuk: Eminem, 50 Cent, The Black Eyed Peas, Kanye West, Jay-Z, Missy Elliott, Lil Wayne, Linkin Park, Korn, Deftones, Limp Bizkit, Slipknot, System of a Down, Radiohead, Wilco, My Chemical Romance, The Killers, White Stripes, Arcade Fire, Lady Gaga, Katy Perry, Justin Bieber, Britney Spears, Christina Aguilera, Coldplay, Diana Krall, Norah Jones, Alicia Keys, Beyoncé, Amy Winehouse, Arctic Monkeys, Franz Ferdinand, Kaiser Chiefs, The Libertines, Groove Armada, Daft Punk, Massive Attack, David Guetta...



BIZI EZAZU ZURE ESPERIENTZIA


DJING IN THE NIGHT

Aspaldi bihurtu zaigu DJa izar, artista sortzaile eta ekoizle diskografiko; baina, orain, ospe handiko DJ batek saio bakarraren truke kobra dezakeena Rolling Stones taldearen kontzertu batengatik kobra daitekeen beste izan daiteke. LMEk DJ-ikastunei eta jakin-mina baino ez daukatenei profesional trebeenek sentitzen dutena bizitzea ahalbidezten die, hain zuzen ere, euren abestien hautaketaren bitartez jendetza hipnotizatu eta dantzaraztea lortzen dutenean. Ez uko egin esperientzia horri.

IBANEZ JS LES PAUL STUDIO GITARRA

Joe Satrianiren oparia

Joe Satriani newyorktarra, bere teknika eta trebezia pentsaezinekin, rocka berriutu zuten birtuosotako bat izan zen. Irakaslea zen, eta bere ikasle batzuk (tartean, Steve Vai) jendaurrea agertzen hasi zirenean, gitarra elektrikoa maite zutenak berarekin interesatzen hasi ziren, eta ospe handia lortu zuen. Ibanez marka japoniarrek bere instrumentu propioa diseinatzeko proposamena egin zion, eta Satrianik antzinako modelo bat berriutu eta eguneratzea aukeratu zuen. JS seriearen barruan, aurrekontu txikiko eta gama altuko gitarrak daude, baina ospetsuenak zilar koloreko Chrome Boy izenekoak dira, Satrianik urte luzez erabili zituenak. [Argazkia: © Fab Llanos]



AC/DC: BETI-BETIKO FAVORITOAK. Angus Young indartsu eta bihurriak, eskola-umeen txapela jantzita, gidatzen du taldea, oso pentsamendu txarrak eta oso musika ona prestatuz.

MADONNAK 1991n bisitatu gintuen lehen aldiz, Blond Ambition Tour birarekin. 2009an, Sticky & Sweet Tour birarekin itzuli zen (bere zortzigarren bira zen), Estatu Batuak eta Europa zeharkatuta.



COLDPLAY BARTZELONAN (2002KO AZAROA). Chris Martin musikagatik eta musikarako bizi den gizona da. Saihestezina zen bere taldeak nazioarteko arrakasta itzelen bat lortzea.



Erakusketan ikusiko duzuna

R. WATERS EN BAXUA. *The Wall* argitaratu eta 32 urte geroago, Pink Floyd taldeko baxu-jotzaile ohiak dimentsio berria eman zion album ospetsu horri, zuzenean arituta: *The Wall Live*.



SIGUR RÓS ISLANDIARRAK harrigarriro ospetsuak dira, euren musika konplexua, intelektuala eta zaila den arren, eta hitz ulertezinak kantatzen dituzten arren, asmatutako hizkuntza batean.

Ezkontza homosexualak onartu ziren Holandan. George Bush, Estatu Batuetako presidente berria. Curtis Mayfield, George Harrison eta Joey Ramone hil ziren.



Prestige itsasontzia urperatu egin zen Galiziako kostaldean, eta 63.000 tona txapapote isuri zituen. OT saioaren arrakasta handiak disko-industria krisia areagotu zuen.

192 hildako, Madrilgo Atochako estazioko atentatu terroristan. Paco de Lucía, Arteen Asturiasko Printzea saria jaso zuen lehenengo musikari herrikoia.

2000

2001

2002

2003

2004

2005

2006

2007

2008

2009



Eminem raperoak lehenengo diskorik salduenaren errekorra gainditu zuen, 1.760.000 kopiarekin. Bederatzi hildako eta 26 zauritu, Pearl Jamen kontzertu batean.

AEBek Irak inbaditu zuten, besteak beste Erresuma Batuen eta espainiar Estatuaren onarpenarekin. Michael Jacksonek eta P. Townsendek pederastia-salaketak izan zituzten.

800 milioi pertsona goseak jota, FAOren arabera. Pobreziaren aurkako Live 8 kontzertuak egin ziren mundu osoan.

MySpace.com planeta osoko musikari eta taldeen zabalkunderako bitarteko ofizial izatera heldu zen. Handik oso denbora gutxira, Facebookek kenduko zion lekua.



Michael Jackson hil zen Beverly Hillseko bere luxuzko etxean. Hannah Montanaren telesailaren oinarritutako film luzeak 17.436.095 dolar bildu zituen estreinaldiaren egunean.

ERAKUSKETAN ZEHAR NOLA MUGITU

90EKO HAMARKADA. Dantzarako musikak neurri epikoak lortu ditu. Galdu zaitetz duela 20 urteko garaian, deskargatu adrenalina eta egin salto ikus-entzuleen buruen gainean. **LOS 90.** La música alternativa cobra dimensiones épicas. Descarga tu adrenalina y salta sobre las cabezas del público.

00KO HAMARKADA. Teknologia berriek biniloa irentsi dute. Rockaren eta poparen supervedetteen booma, bereziki latindarra. Dj aritu nahi duzu? Bada, egin ezazu. **LOS 2000.** Las nuevas tecnologías destruyen el mercado. *Boom de supervedetes* rock y pop. ¿Quieres ejercer de DJ?

LOKALA. Bilbok paper garrantzitsua dauka zuzeneko musikaren historian. Hemen ikusiko duzu nola, noiz eta non, material ugariarekin. **LOCAL.** Euskal Herria juega un papel importante en la música en vivo. Aquí verás cómo, dónde y cuándo.

DOKUMENTALA. Gay Mercaderri eta beste ekoizle batzuei buruzko bideo interesgarria, bai eta ekoizleak kontzertuen antolaketan duen garrantziari buruzkoa ere. **DOCUMENTAL.** Interesante vídeo sobre Gay Mercader y su trayectoria. El promotor en la organización de conciertos.

BALIOANIZTUNA. Zuzeneko musikari buruz beti jakin nahizaz zuzenari buruzko materialak eta sorpresak. **POLIVALENTE.** Materiales y sorpresas sobre todo lo que siempre quisiste saber sobre la música en directo.

SARRERA. Hemen, aurrerago aurkituko duzunari eta hori posible egin duenari buruzko informazioa aurkituko duzu. Irakurri arretaz. Hobeto ulertuko duzu. **ACCESO.** Aquí encontrarás la información sobre lo que te aguarda más adelante y quiénes lo han hecho posible. Lee con detenimiento, lo entenderás todo mejor.

Erakusketa Aretoa / Sala de Exposiciones.

Planta -2 Solairua

Ekaina / Junio: Asteartetik igandera / De martes a domingo / 10.00-20.00 h

Uztaila eta Abuztua / Julio y agosto: Asteartetik igandera / De lunes a domingo / 11.00-21.00 h

Sarrerak / Entradas Ticket Box - Infopuntua

Prezioa / Precio: 3 euros (2 euros AlhóndigaBilbao txartelarekin edo BBK Live Festival-en bonua aurkeztuz / con tarjeta AlhóndigaBilbao o con el bono de BBK Live Festival)

CÓMO MOVERTE POR LA EXPO

80KO HAMARKADA. Eremu bisualak eremu musikala inbaditu du. Entzun garaiko soinua eta izan zaitetz benetazko rock izarra. **LOS 80.** Lo visual invade la música. Escucha los sonidos de la época y conviértete en una auténtica estrella de rock.

70EKO HAMARKADA. Dibertsioaren eta eskapismoaren hamarkada. Giro eta estiloen berregitea, kronologia, abestiak, objektuak eta esperientzia elkarreragilea: oihumetroa. **LOS 70.** Diversión y escapismo. Viaje en el tiempo. Recreación de ambientes y estilos... ¡y el Gritarhero!

LME RELIQUES. Azkar ustekoek kontzertuetara joatean erabiltzen zuten pikareska rockeroaren adibideak. **LME RELIQUES.** Ejemplos de la picaresca rockera utilizada por los listillos en sus incursiones a los conciertos.

BACKSTAGEA. Hau da zuzeneko kontzertu baten bihotza: teknikariak, estilistak, ekoizleak, soinu-arduradunak... Sartu barruraino! **BACKSTAGE.** Este es el corazón de un concierto en directo: técnicos, estilistas, productores, *sonidistas*... ¡Métete a fondo!

ALDAGELA. Artisten eta beraien neuren eskola. Segurutzaindariak uzten badizu, deskubritu eszenatokira irten aurretiko maniak eta sekretuak... **CAMERINO!** El cascarón de los artistas y de sus neuras. Si el *segurata* te lo permite, descubre sus secretos fuera del escenario.

OSPEAREN KORRIDOREA. Ez galdu neurritasuna; dozenaka argazkilarik ari diren hilezkortzen ari dira. **PASILLO DE LA FAMA.** No pierdas la compostura; recuerda que eres una estrella del rock y docenas de fotógrafos te acechan.



KATALOGOA LME

Erakusketa ikusgai izango duzun guztia zuzeneko kontzertuetan adituak diren 40 lagunen eskutik. AlhóndigaBilbao SHOPA dendan salgai 18 eurotan!

CATÁLOGO LME

Todo lo que puedes ver en la expo, avalado por cerca de 40 expertos del mundo de la música en directo. A la venta en la tienda SHOPA de AlhóndigaBilbao. Precio: 18 euros.

AlhóndigaBilbao

www.alhondigabilbao.com

info@alhondigabilbao.com

PLAZA ARRIQUIBAR, 4 - 48010 Bilbao

Tel. 944 014 014

Zentroaren ordutegia / Horario del centro:

ASTELEHENETIK OSTEGUNERA / DE LUNES A JUEVES, 7.00-23.00 h

OSTIRALAK / VIERNES, 7.00-24.00 h

LARUNBATAK / SÁBADO, 8.30-24.00 h

IGANDEAK / DOMINGO, 8.30-23.00 h

Nola heldu? / ¿Cómo llegar?:

AUTOBUSEZ / AUTOBUSES:

Lineak / Líneas: 18, 76, 26, 27, 38, 48, 62, 72, 77

METROZ / METRO:

Indautxuko geltokia - Urkixo irteera / Estación de Indautxu - Salida Urquijo

Moyuako geltokia - Elcano irteera / Estación de Moyúa - Salida Elcano



Bestelako jarduerak

Erakusketa ikusgai egongo den hilabeteetan beste jarduerak ere egingo dira, eta, horrenbestez, Live Music Experience erakusketa bat baino askoz gehiago izango da.

Hori horrela, Kulturen Atarian aurtengo Bilbao BBK Live jaialdirako programaturako kontzertuetako batzuk izango dira, hala nola, Russian Red (uztailak 12) edo Eli Paperboy Reed-ena (uztailak 13); guztiak 13.30ean izango dira eta sarrera doakoa izango da. Gainera, astearte eta ostegunetan, 20.00etan, Gaztea Live-n barruan, ETBren artxiboko kontzertu enblematikoenetako 26 proiektatuko dira; asteartean bertako taldeen kontzertuak eskainiko dira, eta ostegunetan, berriz, nazioartekoak. Era berean, tailerrak, mintegiak eta musika-erreferentziako zine-zikloa ere izango da, eta, besteak beste, Begoña Atutxa eta Roberto Mosoren *Rock radical vasco: la gran marcha de los 80*, Antón Reixaren *Galicia canibal* eta Rob Reinerren *This is spinal tap* eskainiko dira. [www.alhondigabilbao.com]

Actividades paralelas

Durante los tres meses de la muestra se desarrollarán distintas actividades paralelas que harán de Live Music Experience mucho más que una exposición.

Así, el Atrio de las Culturas acogerá algunos de los conciertos programados para el Bilbao BBK Live de este año, como Russian Red (12 de julio) o Eli Paperboy Reed (13 de julio), todos a las 13.30 h y de entrada libre. Además, los martes y jueves, a las 20.00 h, se proyectarán, dentro de Gaztea Live, 26 de los conciertos más emblemáticos del archivo de ETB; los martes estarán dedicados al panorama local y los jueves al internacional. También habrá talleres, seminarios y un ciclo de cine de referencia musical con títulos como *Rock radical vasco: la gran marcha de los 80*, de Begoña Atutxa y Roberto Moso; *Galicia canibal*, de Antón Reixa, o *This is spinal tap*, de Rob Reiner. [www.alhondigabilbao.com]